

Karta bi

Aita eta ama laztan:

Irrikoi deritxat aita ta ama deitzea, egiz ta benetan etzarie-ta. Bear bada, adiskideak deitzea, obe... Baiña onetaraxe ezin deitu neizue. Etzarie nire guraso, baiña izan zeintekezem. Eta izango zintzen, ni baiño beñagoko beste gauza asko tarteratu ezpaltiaz.

Arakatu dot gure etxea. Bai ta bertako zer guztiekan begia ezarri be, leia bizitan. Zenbat gauza eder! Biotza zorakortzen dabena asko ta asko. Orregaitik ez naz ni jaio. Otz-ikara larriak artu nau, ori burura ekartean. Uskeri mordo oneik galazo dauste bizitz-argi zuria. Ta au, beti-betiko. Ziñez diñotzuet: lurreko gauza txiki ta txepelok, nik jaiota baiño, poz-bide aundi ta giago ekarriko al dautzuez. Or nik zer opa.

Alan be, min dot biotzean, min bizia arantz zorrotzak ozka eginda lez. Ezta eder izan be, gauza uts eta igarkorraz alderatuta, norbere burua bigarren maillan ikustea. Ez yat ez niri be atsegingarri, etxe polit bat edo jolas bat ni baiño baliotsu ta beñagotzat daukiela jakitea. Baiña orrela nai izan zenduen. Eutsi-eziñak giñean orrek gauzok eta ni. Ta kendu ninduzuen errezkadatik... eta ezin nik, zuen erruz, zuei mosurik emon, ez aita ta ama izen gozoz deitu. Al neinkeana, ezin dot, zuen erruz ta eroso bizi-naiz.

Zuok, ba-dakit, beste ikus-mailla batetik begiratzen dozue auzi au. Esan daustazue. Bizia ukatuaz, zuen maitasun estali-eziña darakustazue. Ta zer egingo? Nik bestetara pentsetan dot. Ez uste zuei erakustera natorkizuenik. Baiña atsegiñik ederrena ukatu daustazue: zuekin batera bizi izan. Ez dau ezek balio bizitzeak aiña. Beste gauza guztiak, onen ondoan, txepelkeri besterik ez dira. Zuen auzoko ta adiskideen bixtan onak zarie, ta pozgarri yat au; baiña bear bada, etzarie oindiñokarren konturatu niri aldiko bizia ukatzean, betikoa be ukatu daustazuela. Ta au, damurik, eneganako maita-za egina!

Bai, neure onagaitik, diñozue, ez nintzan jaio. Ezin ni txiro ta baldan ikusi. Esker ona erakutsi nai neuskizue, baiña ezin dot. Begira munduan dan umerik ez-eukiena; es dauka etxerik, ez gurasorik, ez etorkizunik; es dauka ezzer; trakets, erdi-billosik dabil. Beartsuen artean beartsuena, antza. Baiña nire alboan milloi askoduna da. Itxaropenez zeruaren jabe da, ta egunen baten an bizi izango. Egia, zuentako gaur bizi zarieneztako naita-ekzo diran gauzarik asko palta yakoz. Baiña bizi da! Ni, ostera, bizi be ez...

Gorputz eta adimen osasuntsuz be zerbait aitatzen zenduen zeuen eskutitzean. Oso arrigarri yat ori: nik ez daukat gorputzik gaixotu daikedanik, ez adimenik eraldatzeko. Egiaz diñot, gurago neukez euki, bizi izatearren soil-soil, zuek diñostazuezan arrisku ta neke guztiok eroan bear izanik be. Zoriontsu dira beartsuak soñez erkin ta adimenez aulak; bizi naiago beti be.

Bein edo bein, zerura ba'zoaze, ulertuko dozue diñotzuedana. Billatu an norbait, lurrean 75 urtez estu ta larri bizi izan zana. Itandu 500 edo 1.000 urte zoriontsu igaro ondoren, jaio izanaz pozik ezpa-dago. Itandu itsu bati, elbarritu bati, ergel nai zozo bati, urteak dirala edo miñitu batzuk baiño zeruan ez daroazanari. Itandu zer naiago eban: zuen maitasunak niri ezarritako epaia, ala bizitzan eroan bear izan ebazan neke-lorrak.

Eder izango litzakit, «agur, ba-noa», zuei esatea. Baiña ezin. Ez noia, ba, iñora be, iñun ez nago-ta. Ez naz. Teologi-gauzarik ez dakit, baiña ez nintzake bape arrituko, egunen baten bear bada Jaungoikoak nitaz itanduko ba'leuskizue bai ta zuek eukitea Berak erabagita eukan beste umetxoetzaz be. Argi ta garbi dirautzuet, Arentzat niretako baño errazoi sendoagoak euki bearko dozuezala.

Maita izan ziñaikezan norbaitek, agur diñotzue.

ZUEN SEME IZAN ZEIKEANAK